

MARKINA-XEMEIN / Irakurri bai, baina pilotan ez

EIDER MUGARTEGI

Herri bibliotekan ezin dela pilotan jokatu argi dago, baina zalantzarik egonez gero, sarreran dagoen kartelak argi uzten du: Debekatuta pelotan jokatzea. Ez da txantxa bat, biblioteka dagoen eraikinak izandako aldaketek eragindako bitxikeria besterik ez da.

Herri bibliotekaren alboan dagoen Beti Jai Elkartearen egoitza berritu aurretik, aterpea zegoen bien aurrean. Eraikinak alboan frontoia dauka, eta gaur egun ere, frontoiaren horman esku pilotan ibiltzen dira gaztetxoak. Horrela, euria egiten zuenean, aterpean babesten ziren, eta bateren bat harrapatu zuten jokoan. Egia esan, frontoi txiki baten antza bazeukan aterpeak, baina pilotak hormetan ateratzen zuen iskanbila ere ederra izaten zen. Horrela, aterpe hartan pilotan jokatzea debekatu zuten eta plaka jarri zuten abisua emanez.

Barruan

Orain dela lau urte inguru, Beti Jai Egotetxea berriztu zutenean, beheko aterpea ere itxi egin zuten, eta berdin gertatu zen herri bibliotekaren aurreko zatiagaz. Halantxerik, kanpoan zegoen plaka barruan geratu da, bibliotekako liburuen alboan.